

.EUS domeinua abian

90 aitzindari hautatuko dira lehen .EUS domeinu-izenak izateko

2013ko ekainaren 14an onartu zuen ICANN erakundeak .EUS domeinuaren eskaria eta ibilbide baten hasiera izan zen. Euskararen herriaren nazioarteko aitortza lortu genuen, baina aitortza hori errealitate bilakatzeko beste bi urrats handi eman behar genituen: ICANNekin kontratua sinatzea eta test tekniko bat, .EUS domeinua martxan jartzeko beharrezkoa den azpiegiturak ondo funtzionatzen duela erakusteko.

2014ko apirilaren 15ak markatu du .EUS proiektuaren lehen egitekoa, proiektuaren webgune berria aktibatu genuenean: www.domeinuak.eus. Baina gaur .EUS domeinuaren beste kapitulu bat idazteari ekingo diogu, .EUS domeinua komunitateari irekiko diogulako. Eta horretarako, .EUS domeinuaren erregistroarako faseak eta zenbait data aurkeztuko ditugu.

.EUS domeinuen erregistroak hiru fase ezberdin izango ditu:



Aitzindarien Programa

Gaur abiatuko da fase hau. .EUS domeinuak 90 aitzindari izango ditu, 90 webgune, 6 hilabetez ikusgarri izango diren .EUS domeinu-izen bakarrak izango direlarik. Hortaz, 90 domeinu-izen horietako bat eskuratu eta aitzindari izan nahi duten norbanako, elkarte, instituzio publiko eta enpresek proposamen bat bidali beharko digute.

Aitzindarien Programaren helburu nagusia .EUS domeinuaren sustapena da. Aitzindari izateko interesa dutenei lehen 90 .EUS domeinu-izenen artean egoteko aukera eskaintzen die. Fase eksklusibo honetan parte hartzeak ekarpen ekonomiko berezia suposatuko du, ekarpen hori finantzarioa edo espezieetan egin ahalko delarik (edota bien konbinazio bat). Honek, bide batez, .EUS domeinuaren proiektua ekonomikoki laguntzea ere ahalbidetuko du.

Horretarako, 4 multzo ezberdin definitu ditugu eta multzo bakoitzaren izaeraren arabera, ekarpen ekonomiko minimoa ezarri dugu. Zehazki, hau da jarraituko dugun eskema:

Multzoa	Azpimultzoak	Ekarpen minimoa (finantzaria edo espezetan)
Norbanakoak	Norbanakoen webguneak, oro har.	300€
Euskara eta euskal kulturaren sustapena aktibitate nagusi duten entitateak	Euskararen sustapenerako elkarteak, euskal kulturaren sustapenerako elkarteak, editore eta liburu-dendak, idazleak, itzultzaileak, interpretariak, entitate artistikoak, kultura herrikoia/tradizioa sustatzen duten entitateak, museoak, kirol-elkarteak, herri mugimendua, sektore akademikoa eta abar.	500€
Instituzio publikoak eta hauengandik eratorritako erakundeak	Autonomia, komunitate, herrialde, herri eta udalerrriak. Erakunde politiko eta sozioekonomikoak. Partidu politikoak (kargu nagusienak betetzen dituzten pertsonen izenak barne), sindikatuak, patronalak, profesionalen elkargoak eta elkarteak.	3.000€
Enpresak eta hedabideak	Mota guztietako enpresak eta hedabideak.	5.000€

Proposamenak bidaltzeko epea gaur ireki eta maiatzaren 30ean bukatuko da eta info@domeinuak.eus helbidean jasoko ditugu. Proiektuaren webgunean baldintza guztiak zehatz-mehatz azaltzen dituen dokumentu bat jarriko dugu.

Abiarazte-aldia

Bigarren fasea Abiarazte-aldia da. Abiarazte-aldia lehentasunezko fasea da eta .EUS komunitateari hertsiki lotutako elkarte, enpresa eta instituzio publikoen domeinu-izenek bideratua dago, euren domeinu-izenak eskatzeko eta babesteko balioko duelarik.

Fase Irekia

Fase Irekiak .EUS domeinuen erregistroa publiko orokorrari irekiko dio.

.EUS domeinua komunitate oso baten domeinua da. Komunitate indartsu eta oparoa, Interneten merezi duen ikusgarritasuna lortu duena. Ahalegin handia egin dugu hau guztia lortzeko eta aitzindarien faseak .EUS domeinu-izen bat eskuratzen lehenenetakoa izateko aukera eskaintzen du.

Eskuratu zure .EUS domeinua.

Eskerrik asko.



PuntuEus Fundazioa

www.domeinuak.eus || info@domeinuak.eus || +34 665770945